

250 Nomina/Pentsioa Bezero Berria Sustapenera atxikitzeko buletina

SUSTAPENAREN BALDINTZAK:

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. merkataritza-erakundeak, egoitza soziala Bilboko San Nikolas plaza 4 helbidean duena eta A48265169 zenbakiko IFKrekin (aurrerantzean, "BBVA"), antolatzen du Sustapen hau, "250 EURO NOMINA/PENTSIOA BEZERO BERRIA" deiturikoa (aurrerantzean, "Sustapena"), lege-oinarri hauen bidez arautua (aurrerantzean, "Lege-oinarriak").

1. ZERTAN DATZA?

Sustapen honen helburua da online bezero berrien alta eta nomina edo pentsio berri baten (800 € edo gehiagokoa) helbideratzea sustatzea. BBVAko bezeroa izateko interesa baduzu, www.bbva.es edo m.bbva.es webguneen bidez edo BBVAren aplikazioen bidez egin dezakezu (Android eta iOS sistema eragileak).

Sustapenaren baldintzak betez gero, 250 € gordineko (202,50 € garbi) (hemendik aurrera, "Hobaria") hobaria lortuko duzu kontuan, 13. puntuan azaltzen den moduan.

2. NORENTZAT DA?

Sustapena horren hasieran 18 urte baino gehiago dituzten pertsona fisikoentzat izango da, Espainian egoiliarrek direnak, BBVA bezero ez direnak eta bosgarren (5) atalean azalduko betekizunak betetzen dituztenak.

3. ZEIN DA SUSTAPENEAN PARTE HARTZETIK KANPO?

Sustapenean parte hartu ahal izango duzu azken 2 urteetan ez baduzu parte hartu nomina, pentsioa edo langabezia prestazioa BBVA helbideratzeagatik beste ezein promoziotan. Era berean, Sustapen honetara atxikitzen bazara, ezingo zara atxiki BBVAren beste promozio batera hau indarrean dagoen bitartean, ezta amaitu eta hurrengo sei (6) hilabeteetan ere.

Sustapen honetan parte hartzetik kanpo geratuko zara hura antolatzen aritu bazara, edo BBVAren edo haren enpresa taldearen jarduneko langilea edo aurretik erretiratutakoa bazara.

Orobat, nahiz eta Lege oinarri hauetan adierazitako baldintzak bete, ezingo duzu parte hartu Promozioan indarraldian eta Hobaria eman arte BBVAri zerbait zor badiozu, iraungita egon arren zenbateko likidoa eta galdagarria izanez gero. Kasu horretan, hobaria jaso aurretik erregularizatu beharko duzu egoera. Hobaria sartzeko eguna iritsita oraindik ez baduzu erregularizatu zorra, hobaria jasotzeko eskubidea galduko duzu, eta ez zaizu sartuko kontuan.

Era berean, zure altaren zioa izan bada BBVAko beste bezero batek elkarrekin sustapenaren ("Gonbidatu Lagun Bat Plana") onuradunak izan zaitezten partekatu dizun sustapen-kode pertsonalizatu bat erabiltzea, ezingo duzu horretan parte hartu kode horrek 10 erabilera baino gehiago baldin baditu.

4. ZENBAT IRAUTEN DU SUSTAPEN HONEK ETA ZENBAT KONTUK DUTE, GEHIENEZ, HOBARIA?

Sustapenean parte hartzeko epea 2023ko abenduaren 24ean hasiko da, 00:00etan (Espainiako penintsulako ordua), eta 2024ko martxoaren 31ean amaituko da, 23:59ean (Espainiako penintsulako ordua), bi egun horiek barne (aurrerantzean, "indarraldia").

5. ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA SUSTAPENEAN PARTE HARTU ETA GOZATZEKO?

Parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dituzu:

- BBVAko bezero ez izatea;
- Sustapena hasi eta aurreko sei (6) hilabeteetan BBVAko bezero gisa baja ez ematea;
- BBVAren bezeroen alta mugikorraren edo webgune bidez egitea Lege-oinarriak onartzea eta Indarraldian jarduera hauek burutzea:
 - Online alta hartzea bbva.es edo m.bbva.es webgunean edo app-aren bidez, BBVA Online Kontua eta Va Contigo Kontua (bietako edozein, aurrerantzean, "Kontua") kontratatuta; eta,
 - Zortziehun (800) € edo gehiagoko hileko nomina edo pentsio bat Kontuan helbideratzea. Aipatutako gutxienerako 800 €-ko zenbateko hori kontuan transferentzia bidez jasotako nomina edo pentsio batena izan behar da. Ez du balioko BBVA helbideratutako nomina edo pentsio bat baino gehiagoren baturak;
 - Nomina edo pentsioa (adierazitako gutxienerako zenbatekoa duena) Kontuan helbideratuta izatea Sustapenera harpidetu eta, gutxienez, ondoz ondoko hurrengo hamabi (12) hilabetez.

Hogeita hamar (30) egun naturaleko gehieneko epea izango duzu, Kontuaren kontratua sinatzen denetik hasita, kontua kontratatzeko eta hari alta emateko eta, ondorioz, hura indarrean jartzeko BBVAk eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko. Epe hori igarotakoan Kontua martxan ez badago, eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidali ez delako eta ezin izan zaiolako alta eman, Sustapena bertan behera geratuko da.

Behin kontua altan emanda eta operatzeko aukera izanda, gehienez hiru (3) hilabete epea izango duzu lehen diru-sarrerarako nomina edo pentsioa helbideratzeko. Kontu horretan ez bada sartzen gutxienez 800 €-ko nomina edo pentsio bat adierazitako tarte horretan, Sustapena ezeztatu egingo da.

Zure nominaren edo pentsioaren diru-sarrera dokumentu honen hasieran adierazitako kontuan egindako transferentzia bidez egin behar da ondoz ondoko 12 hilabeteetan zehar, honako bi kontzeptu hauek erabilita:

- Nomina: transferentziak ordaintzeari buruzko bankuko araudian nominak ordaintzeko ezarritako kodifikazioaren arabera jaulkita egon behar du. Hau da, kontuko ordainketa transferentzia gisa sartzen bada, baina ez badago identifikatuta nominaren kodearekin, ez da emango Sustapenaren hobaria.
- Pentsioa: Gizarte Segurantzak agindutako kotizaziopeko pentsioak eta osagarriak.

BBVA Online kontua eta Va Contigo kontua kontratatzeak kontu korrante baten eta txartel baten kontratazioa darama berekin. Bankuak erabakiko du sustapenaren indarraldiko une bakoitzean bi kontuetako zeini lotzen zaion Sustapena. Online alta emateko prozesuaren hasieran, BBVAk jakinaraziko dizu zuk aukeratu duzun Kontua Sustapenari atxikita ote dagoen. Kontsultatu informazioa kontratatutako aurretik.

6. ZEIN DA HOBARIA, ETA NOIZ JASOKO DUZU?

Parte hartzeko baldintzak bete eta aurreko puntuan adierazitako urratsak burutzen badituzu, berrehun eta berrogeita hamar (250) euro gordineko Hobaria jasoko duzu alta hartzeko prozesuan kontratatutako Kontuan.

Lege oinarriotako baldintzak betez gero sartuko da Hobaria.

BBVAk Lege-oinarrietan ezarritako baldintzak egiaztatu ondoren egingo dizu Hobariaren diru-sarrera, hilean zortziehun (800) euro edo gehiagoko nomina edo pentsioa zure Kontuan lehenengoz helbideratu eta gutxienez berrogeita bost (45) eguneko eta gehienez sei (6) hilabete epean.

Hobaria ezingo da aldatu, nahastu edo konpentsatu. Hobariari uko egiten badiozu, horren orde ez zaizu besterik eskainiko.

7. NOLA EMATEN DA HOBARIAREN BERRI?

Hobaria, beranduenez ere, sei (6) hilabete epean jakinaraziko zaizu, Kontuan helbideratutako nominaren edo pentsioaren lehen

ekarpena jasotzen den egunetik kontatzen hasita.

Hobariaren zenbatekoa hobariaren titulartasuneko BBVA kontuan jarriko da, "Sustapen komertzialaren Hobaria" kontzeptuarekin eta azalpen honekin: "Hobaria 250 EURO Nomina/Pentsioa Bezero Berria".

8. NOLA ONARTZEN DIRA LEGE-OINARRIAK?

Lege-oinarri hauek onartuta, horiekin ados zaudela adierazten da, eta ontzat ematen da BBVAren irizpidea haiek interpretatzean egon daitekeen edozein gatazka ebazteko. Parte-hartzaile gisa, eta hala dagokionean, BBVAk eman ditzakeen jarraibideak bete beharko dituzu. BBVAk eskubidea du zu deskalifikatzeko, Promozioa manipulatzeko, hura manipulatzeko saiatzeko bazara edo Lege-oinarri hauetako zehaztapenak eta baldintzak urratzen badituzu.

BBVAk beharrezko erabakiak hartu ahalko ditu Sustapen honen garapenean sor daitezkeen desadostasun edo gatazkak konpontzeko, betiere behar ez bezala kaltetzen ez bazaituzte eta bidezkoak badira. Aurretik aplikagarriak ziren parte hartzeko baldintzak betetzen ez badituzu edo Lege-oinarri hauetan aplikagarriak diren baldintza guztiak betetzen ez badituzu, ez duzu eskubiderik izango Hobaria jasotzeko oinarrietan ezarritako baldintzetan.

9. ZER GERTATZEN DA SUSTAPENAREN BALDINTZAK EZ BADITUZU BETETZEN?

Lege-oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez baduzu (tartean hobaria haietan ezarri bezala entregatu ondoren indarrean dauden baldintzak), Sustapena bertan behera geratuko da, eta, ordurako Hobaria kontuan izango bazenu, itzuli egin beharko duzu.

BBVAk hobariaren zenbatekoa sartu izan den Kontuan jarritako zenbateko bera duen kargu bat egingo dizu. Sustapenaren Lege-oinarriak ez badituzu betetzen, automatikoki geldituko da bertan behera, baita horiek gerora beteta ere.

10. ZER GERTATZEN DA IRUZURRA BADA EDO EGITEN BADUZU?

BBVAk edo Sustapenari profesionalki lotutako edozein entitatek irregulartasunen bat hautematen badu edo Sustapenaren garapena eragozten ari zaren susmoa baldin badu, alde bakarrez eten ahalko dute Sustapeneko zure parte-hartzea. Ondorio horietarako, BBVAk beharrezko euskarri teknologikoak gaitu ditu iruzurrekoa, irregularra edo dolozkoa izan daitekeen jarduera hautemateko, Hobaria zilegi ez den eran lortzeko asmoz parte-hartzea nahastu nahi denean. Horregatik, BBVAk beretzat gordetzen du zure erregistroa ezabatzeko eskubidea, ikusten edo susmatzen badu aurreko paragrafoan azaldutakoaren ildotik jarduera irregularra duzula.

11. ZEIN DA ERREKLAMAZIO-EPEA?

Sustapenaren erreklamazio aldia indarraldia amaitu eta hamabi (12) hilabete igarotakoan amaituko da.

12. ZER TRATAMENDU EMANGO ZAIE IZAERA PERTSONALEKO ZURE DATUEI?

Titularrari jakinarazten zaio Sustapen honetan parte hartzean emandako datu pertsonalak, Hobariaren onuradun gisa emandakoak barne, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria SAK (egoitza soziala: San Nikolas plaza 4, 48005, Bilbo) tratatuko dituela, Sustapenaren antolaketa, kontrola eta jarraipena burutu eta hobaria eman ahal izateko asmo soilarekin.

Zure datu pertsonalak horiek babesteari eta informazio gizarteko zerbitzuei buruz aplikagarri den araudian ezarritakoari jarraituz tratatuko dira, beharrezko neurri tekniko, antolakuntzako nola segurtasunekoak hartuko direlarik horien konfidentialtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea edo horietarako baimendu gabeko tratamendu edo sarbidea saihesteko.

BBVAk honako hau jakinarazten dio titularrari:

- Datu pertsonalak kontratu-harremana iraun bitartean gordeko dira. Horiek ezabatzeko unea denean, blokeaturik jarraituko dute legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoak direnak, legezko preskripzio epeetan, erreklamazioak egiteko edo legezko ekintzak burutzeko xede soilarekin.
- BBVAk ez dizkie datu pertsonalak hirugarrenei jakinaraziko, salbu eta lege batek horretara behartzen duenean edo horretarako dagokion baimena jaso denean.

- Datu pertsonalak tratatzeko legitimazio-oinarria Sustapen honetan parte hartzeko emandako baimena da.
- Parte-hartzaileek doan erabili ahal izango dituzte datuetan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak, idazki bat igorri derechosprotecciondatos@grupobbva.es helbide elektronikora. Eskubide horien gauzatzeak ez du atzeraeraginezko ondoriozko izango. Sustapen honen kudeaketarako behar diren datuak ezabatuz gero, baja hartuko da automatikoki bertan.
- Parte-hartzaile batek uste badu bere datu pertsonalak ez direla tratatu araudiaren arabera, BBVA Taldearen Datuak Babesteko Ordezkariekin jarri ahal da harremanetan helbide elektronikoko honen bidez: dpogrupobbva@bbva.com. Nolanahi ere, erreklamazioa jarri ahal izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean (www.agpd.es).

13. ZER ZERGA DITU HOBARIAK?

250 € gordineko (202,50 € garbi) ordainketa kapital higigarriko etekina da; beraz, unean indarrean dauden tasen atxikipenaren arabera izango da. Gaur egun, %19ko atxikipena du Espainiako egoiliar fiskalentzat.

250 €-ko ordainketaz gain, BBVAk 47,50 €-ko kargu bat egingo dizu kontuan atxikipen horrengatik, eta diru hori sartuko du zure partez Altxorreen. Honela, zure Kontuaren helbideratzeari buruzko zerga-informazioa eskura jarriko du, errenta aitorpenerako. Etekina eta atxikipena biak egotziko zaizkizu, edozein direla ere helbideratzen den kontuko gainerako titularrak. Sustapen honen balio aldian gerta daitezkeen aldaketa fiskalei kalterik egin gabe.

Zalantzarik izanez gero, kontsultatu zeure zerga-aholkulariarekin.

14. ZER ERANTZUKIZUN DU BBVA-K SUSTAPEN HONETAN?

BBVAk ez du bere gain erantzukizunik hartzen Sustapenean parte hartzeari eragin diezaioketen galeren, narriaduren, lapurreten, atzerapenen edo hirugarrenei edo Interneti egotz dakiekeen beste edozein inguruabarren gainean.

BBVAk beretzat gordetzen du edozein parte-hartze edo parte-hartzaile kanporatzeko eskubidea, Sustapenean behar ez bezalako manipulazioa egiten ari denaren susmorik baldin badu.

Era berean, BBVAk ez du inolako erantzukizunik izango, hartutako segurtasun-neurriak gorabehera, parte-hartzaileek zerbitzuak eta edukiak behar ez bezala erabiltzeagatik sor daitezkeen edozein motatako kalte-galerengatik, eta, bereziki, nahiz eta ez modu eskusiboan, erabiltzaile batek egindako edozein komunikaziotan hirugarren baten nortasuna ordezteagatik sor daitezkeen era guztietako kalte-galerengatik.

BBVAk ahalmena du Lege-oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.

Onartu egiten duzu BBVAk geroratu, laburtu, atzeratu, aldatu, ezeztatu edo eten egin dezakeela Sustapena, bere kontrolatik at dauden ezinbesteko arrazoiak direla eta; BBVAk, bere aldetik, gorabehera horretaz zuri lehenbailehen jakinarazteko konpromisoa hartzen du. Lege-oinarri hauetako edozein klausula baliogabetzat jotzen bada, indarrean jarraituko dute horrek eragiten ez dien gainerako klausulek.

15. LEGERIA ETA FORUA Edozein desadostasunerako, Espainiako legeria aplikatuko da bezeroaren bizilekuko auzitegi eta epaitegietan.